


Euskal Birusa Elkartea



Markos Gimeno, logo berriaren diseinatzailea



Argazkia: Carolina Schiassia.

- Adina:

34

- Lanbidea:

Aldizka marrazkilari, grafittigile, diseinatzaile eta metalgintzako peoi.

- Diseinua, lana edo afizioa?

Afizioa eta bizioa.

- Zenbat diseinu egin dituzu bizitza osoan?

Ez ditut zenbatu. Txikitatik aritu izan naiz baina desastre hutsa izan naiz beti eta ez dut nire lanen bildumarik; orain ordenagailuarekin lan egiten dudanez errezago eta ordenatuago gordetzen dut dena.

- Euskal Biruserako zein logo eta kartel diseinatu dituzu?

San Martineko txerria eta birus txarangoaren pegata. Azkenak Ermuan Kantuan liburua eta birus berria. Igual ahazten dut bat edo beste.

- Non topatzen duzu inspirazioa?

Burura lehendabizi etortzen zaidan ideia lantzen hasten naiz. Ez dago ideia txarrik, zure ideia nola landu da koska. Lanaren ekinean dator inspirazioa.

- Honetan ere modak daudela uste duzu?

Jakina.

- Euskal Birusaren logoak aldaketa behar zuela uste duzu?

Bai, aspalditik. Nora doa birus txuribeltz bat? Nor gehiago kutsatuko luke horrela? Berritu ala hil.

- Zergatik berdea?

Kutsakorra behar zuen, baina ez arriskutsua.

- Zergatik hain mihi luzea?

Hizkuntzaren erabilerari garrantzia eman nahi nion. Mihi luzea du, dantzan, euskara kutsatzeko irrikaz baitago.

- Honen inguruan komentariarik jaso duzu?

Ez asko. Mihiaz bai batzuk, ETBko mihiluze saioa gogoratzen zuela eta. Orokorrean, birus berriak harrera ona izan duela iruditzen zait.

- Besterik esateko...

Etorkizun kutsakor oparoa izan dezala gure birusak.